BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1060

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 28koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Hazi Fundazioaren estatutuetako honako artikulu hauetan egindako aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena: 12. artikulua (Patronatua), 23. artikulua (Batzorde Iraunkorra) eta 24. artikulua (Batzorde Profesionalak).

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko abenduaren 27an sartu zen Herri Administrazio eta Justizia Sailean Hazi Fundazioaren estatutuetako 12. artikuluan (Patronatua), 23.ean (Batzorde Iraunkorra) eta 24.ean (Batzorde Profesionalak) egindako aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea, Fundazioko Patronatuak 2012ko abenduaren 13an erabakitakoa. Espedientean jasotako agiriak erantsi zitzaizkion eskabideari.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Hirugarrena.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 23 bis artikuluaren arabera –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen lege horren testu bategina–, Hazi Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioa da, eta bere estatutuen aldaketarako behar den baimena eskatu dio Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Baimena 2012ko abenduaren 11ko bilkuran eman zen, hala dago jasota Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak, María Jesús San José López andreak, egun berean egindako ziurtagirian.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2012ko abenduaren 13an Abadiñoko (Bizkaia) Hazi Fundazioaren Patronatuak estatutuetako 12. artikuluan (Patronatua), 23.ean (Batzorde Iraunkorra) eta 24.ean (Batzorde Profesionalak) erabakitako aldaketak inskriba daitezela agintzea, inskripzioak agindu honen data duela, 2012ko abenduaren 13an Néstor Almarza de la Peña notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoko zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 1446).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 28a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.